

Gazteen ahotsak eta INDARKERIAREN HOTSAK



Zer nolako indarkeria matxistak bizi dituzte Aiaraldeko gazteek?

Heziketa liburu eta roletatik hasita, harremantzeko eta espazioak hartzeko moduetaraino agerikoa da genero indarkeriak gazteengan duen eragina. Oso barneratuta egonagatik, hautsi edo salatzeakoak dira indarkeria matxistaren joerak: emakume izateagatik gutxiestea, kontrola, errudun sentiarazteko joera, sare sozialetako edo telefono bidezko jazarpena eta abar luze bat.



Nola jabetu indarkeria matxista jasan edo eragin dugula? Izebergaren teoriak agerian uzten ditu egunerokotasunean barneratutako biolentzia egoerak. Metaforari helduta erraz ulertzeko, urazalean modu agerikoan azaltzen dira oihuak, mehatxuak, irainak, eraso psikiko zein fisikoak, bortxaketak edota erailketak.

Urazpian, aldiz, ikusezinak diren jarrera edo ekintzak kokatuko lirateke: gutxiestea, erruduntzea, umore edota txiste matxistak, hizkuntza sexista, kontrola, anulazioa, xantaia emozionala, umiliazioa, emakume izateagatik entzungor egitea... Adibide eta aurpegi asko ditu indarkeria matxistak, ez bairik gabe. Azken urteetan ahalduntze eta kontzientziazio ari-

keta kolektibo zein pertsonal asko gartu badira ere, lan handia dago egiteko oraindik heziketa zein hezkuntza esparruetan.

Matxismo ezkutua

Luis Bonino Mendez autoreak "mikromatxismo" kontzeptua sortu zuen, indarkeria ikusezinak bistartzeko. Oro

har, jarrera normalizatu eta naturalizatuak dira, haren iritziz. Beste zenbaitentzat, baina, izendapena ez da egokia, mikrorrizkiak arazoaren larritasuna txikitzen baitu. Edozelan ere, askorentzat, bikote testuinguruan identifikatzen da errazen genero indarkeria, baina bestelako eremuetan ere oso presente dago: hezkuntzan, lan munduan, kaleko eta etxe-

Gazteen arteko harremanetan, hezkuntzan zein aisialdian, ugariak dira indarkeria matxista jasateko moduak. Genero indarkeriak sare sozialak eta bestelako esparruak ere hartu ditu

Kontrola zein gutxiespenetik harago, asko dira egunerokotasunean ikusezinak bezain errepikakorrek diren egoerak

ko bizitzetan, familian, lagun artean....

Nola identifikatu, ordea, egunerokoan indarkeria matxista ezkutua? Modurik eraginkorrena, zapalkuntza egoerei hitza jartzea da. Esate baterako, talde er-tain edo handietan kokatzen garenean, nolako jarrerak hartzen ditugu? Nork hartzen du hitza edo iniziatiba gehie-netan? Edota, espazio komunetan -jo-lastokietan, zelai edo parkeetan zein fes-ta eremuetan- nork hartzen du espazio gehien?

Arrosa eta urdinaren bereizketari ja-rraiki, txikitatik ezarri izan zaie sexua-ren arabera rola pertsonari. Genero identitatea libreki hautatu ordez (ema-kume-gizon sistema binariotik hara-go norbere identitatea definitzeko era gehiago daude), izateko modu bat bul-tzatu du sistemak. Horren arabera, bo-tere edo aukera gehiago -edo gutxiago- eman izan zaio jendeari.

Hala, indarkeria matxistaren ondo-riotzat jotzen dira espazio publikoetan gune gehiena gizonezkoek hartzea, gor-putz edota ahots bidez, talde handietan (geletan, bileretan...) nesken ahotsa gu-txitan aditzea, edota gizonezkoen jakin-tzaren nagusitasuna (ikas zentroetako li-buruetako protagonistak edo erreferen-teak, esaterako, askotan al dira emaku-mezkoak?).

Finean, generoaren arabera rol eta es-tereotipo batzuk ezartzen ditu jendar-teak, zinez barneratuta daudenak. Ho-rrren ondorio dira, esate baterako, ema-kumeak etengabe epaitu eta kritikatzeta (itxura fisikoagatik, besteak beste), mu-tilek gaztarotik nesken aurrean nagusi-tasuna markatzea, sare sozialetako edo-ta telefono bidezko kontrola, itxura edo “edertasuna” medio errespeturik gabe iruzkintzea Instagram, Facebook edota bestelako espazio digitaletako argitalpe-netan eta abar.

Gazteen arteko harremanak
Ikerketen arabera, 15-29 urte bitarteko gazteen %27.4k uste du genero indarkeria

normala dela bikote harremanetan. Ildo beretik, 2019ko datuen arabera, salaketa ja-rrizutenemakumeen %38,30 urtetik behe-rakoa izan zen Nafarroan. “Betirako mai-tasun harremanaren ideiak”, eragiten ditu halaber menpekotasun edo menderatzeko egoera asko. Adiera leunenera ekarrita, zen-bat aldiz bihurtu dugu guk ere lagun bat bestearen menpeko, bata bestearen bikote dela esanda, pertsona independente eta li-bre gisa aurkeztu beharrean?

Sare sozialean agerpenak ere nabar-men eragin du jarrera sexistetan, gaz-teen artean batik bat, berauek baitira era-biltzaile masa handiena. Desirei erantzun-ak bilatzeko garaian, zeharo ezberdina da neska-mutilek hartzen duten bidea,

Ikerketen arabera, 15-29 urte arteko gazteen %27.4k uste du genero indarkeria normala dela maitasun harremanetan



Izebergaren teoriak argi azaleratzen ditu indarkeria matxistaren azaleko eta ezkutuko adierak.

Erreportajea

edota helburua lortzeko modua: desio edo maite dugunaren arreta eskuratzeko zapalkuntzak baliatzen dira sarritan. Indarkeria horiek intentsitate baxukoak dira ohikoan (ahotsa gainjartzea, emakumea gutxiestea, tonua eta espazioaren okupazioa...). Maiztasuna handitzerakoan, baina, (alegia, jarraikortasuna badu) ageriko biolentzia bihur liteke, kontrolatik jazarpenera (biolentzia psikologikora) oso tarte txikia baitago.

Gauzak antolatzeko ardura banaketetan ere nabari da bereizketa, noiz edo noiz: nork hartuko luke armairu edo mahaiak mugitzeko ardura? Espazioak erabiltzerako orduan, nagusitasuna markatzen al da? Berdin eseri edo hartzen al dugu espazioa neskek eta mutilek? Ahotsaren bolumenean sumatu al duzue inoiz zapalkuntzarik?

Erlazioez gaindi, kultur produkzioetan (hainbat musika abestitan, bideoklipetan, bideo-jokoetan...) antzeman daitezke zapalkuntza egoerak, jarrera edota mezuak.

Berdintasunean bizi edo heziak izan garen garaiotan, beraz, bada zer hausnartu eta eraldatua, norberarengandik hasita.



Artziniegan aurtengo martxoaren 8an eginiko argazkia.

Kale inkesta

- 1. Zer da zuretzat indarkeria matxista?
- 2. Nola egin dakioke aurre?



Enaitz Diaz
Urduña

- 1. Gizonezko izate hutsagatik emakumezkoa baino gehiago sentitzea. Horren ondorioz, batzuetan biolentzia fisikoa egiten da, eta bestetan psikologikoa.
- 2. Joera matxistak ikusten baditugu aurre eginez, eta aurpegia emanez. Biolentzia bada emakumea babestu behar dugu, eta bestela, berarekin hitz egin eta zentzuz jokatzeko arrazoitzen saiatu.



Izaro Cuadra
Amurrio

- 1. Niretzat indarkeria matxista sistema heteropatriarkal oso baten, emakumearen* gaineko zapalkuntza da. Izeberg-aren punta izan daitekeen erailketa edo bortxaketatik, gauza sistematikoenetaraino; mikromatxismo edo lanen banaketa sexistetaraino, eta abar luze bat
- 2. Aurre egiteko arazoari errotik heldu behar zaio, eta sistema oso bat irauli. Horretarako ezinbestekoa da, emakumeon ahalduntzerako espazioak sortzea eta gure arteko saretze bat ematea



Carla Gonzalez
Urduña

- 1. Indarkeria matxista edozein neska edo emakume iraindu edo mespretxatu egiten duen ekin-tza da niretzat.
- 2. Jendea hezi egin behar dela uste dut. Baina irakasle, guraso eta agintariengandik hasita, azkenean beraiek baitira belaunaldi berriak hezten dituztenak.

INDARKERIA MATXISTA JASAN DUZUN JAKIN NAHI?

ZURE IRITZIA
GUTXIETSIA IZAN
DA NOIZBAIT?

EZ

BAI

ETXERAKO BIDEA
EGITEAN
BELDURRIK SENTITU
DUZU NOIZBAIT?

EZ

BAI

SOINEAN
DARAMAZUNAGATIK
EPAITUA IZAN
ZARA?

EZ

BAI

BAIMENIK EMAN
GABE GORPUTZA
UKITU DIZUTE?

BAI

EZ

JAI GIROAN
DANTZAN
ZENBILTZAN
BITARTEAN
ESPAZIOA OKUPATU
DIZUTE?

BAI

EZ

ZURE
BIKOTEKIDEAK
MESPRETXUZ
TRATATU ZAITU?

BAI

EZ

!!!
ERASOTUA
IZAN ZARA



GALDETEGIA OSORIK ERANTZUTEKO

Gazteen ahotsak eta indarkeriaren hotsak

“Aski eta aske” tailer eta test bidez,
indarkeria matxistari buruzko 250 gazte
baino gehiagoren bizipenak eta iritziak
jaso ditu Aiaraldea Komunikabideak.
Hirutik batek salatu du gorputza
baimenik gabe ukitu izana.

Zer pentsatzen dute Aiaraldeko gazteek genero indarkeriari buruz? Aiaraldea Komunikabideak ikerketa egin du 14-18 urtekoen artean. Guztira 250 gazte baino gehiagok erantzun dute indarkeria matxistari buruzko galdetegia.

Zehazki, 262 pertsonaren iritziak aztertu dira, emakumeak izan dira horien %50 eta gizonezkoak %47,3. Dena den, sistema ez-binarioan kokatu dira %7. Horrenbestez, neska edo mutilek harago, genero gehiago daudenaren jakitun dira egungo nerabeetako batzuk, behintzat.

Sexu identitatea definitzerako orduan, %49.6k bere generoa libreki erabaki duela erantzun du, %29.4k jaiotzetik ezarri ziotelako adierazi duen bitartean. Alta, %11.8k zehaztu du ez dakiela arrazoa. %9.2k, ordea, bestelako argudioak aipatu ditu: “zakila dudalako”, “mutila sentitzen naizelako”... Besteak beste, genero aniztasuna areagotzen doan gizartean, sistema binarioaren defentsa tinkoa egin du “Aski

eta aske” tailerretako partaideetako batek: “Gizonezkoa naizelako kokatzen naiz genero horretan, bakarrik bi genero egon behar dira: emakumezkoa eta gizonezkoa, eta kitto”.

Genero zapalkuntzak agerian

Galdetegiko partaideen (262 lagun) %29 sentitu da generoagatik noizbait gutxietzia edo zapaldua. Adibideen artean denetarikoko egoerak atera dira. “Mutilek gorputz ahalera gehiago dutela esan didate”, dio batek, esaterako. Ildo beretik, kirol lehiaketetan gizonari emakumeari baino garrantzi handiagoa ematen zaiola argudiatu du beste ikasle batek; “eremu eta sari hobeak, ospe handiagoa...”.

Ikasgelan ere, “indarrarekin zerikusia duen zerbait denean, neskei ez digute inoiz egiten uzten”, azpimarratu du testigantzetan beste batek.

Irain matxistak ere ez daude nerabeen egunerokotasunean urruti: “Komentario matxistak entzuten ditugu. ‘Joan ontziak



Aurtengo martxoaren San hartutako irudiak.

*Baimenik gabe
gorputza ukitu
diotela salatu du
%31,3k, hirutik
batek*

garbitzera’ eta horrelako gauzak brome-tan esan arren, denbora guztian errepikatzeak min egiten dit”.

Ikastetxeko esparruetan ere jaso da lekukotzarik: “Maisuak mutiko baten erantzuna zurea baino baliagarriagozat hartzen duenean, adibidez. Mutilek gehiago jakingo balute bezala jokatzeko dute, klasean askotan gertatzen da”.

Beste kide batek, kontrolatua sentitu dela aitortu du: “Egin nahi ez nituen gauzak egitera behartu naute”. Gauez edo etxera joatean beldurra izatea edo kaltetik oihuak jasatea dira azaleratutako beste adibideetako bi.

Kirol jardueretan hainbat indarkeria kasu gertatu dira, gazteen hitzetan. Solaskide baten arabera, “kirola egiten nuen lekuan nesken gauzak ez ziren konparagarriak mutilenekin: material gutxiago eta txarragoa genuen; arroparik zaharrena...”.

Familia barnean ere bizi izan dituzte erasoak, aditzera eman dutenez: “Nire senide batek ipurdia ukitzen zidan jakinda

nik ez nuela nahi". Beste gazte batek,aldiz, osabak "dama" izateko modalak erabiltzeko duen insistentzia kritikatu du, "ez du nire ustea entzun nahi" erantsita.

Lagun artean ere ikusi –edo eragin- dituzte gorriak eta bi, "Aski eta aske" tailetan aitortu dutenez: "Mutilek ipurdia begiratzen didate, eta komentarioak egiteaz gain, euren zakila ukitzen dute. Ikasketa buruari esatea gustatuko litzaidake baina ez naiz ausartzen". Autotik oihukatzea, toki desberdinetara jarraitzea edota arropagatik gutxiestea ere salatu dute zenbaitek. Iritzien artean, gizonezkoen kezak ere badira: "Oraingo neskak feminismoaz aprobetxatzen dira, eta adibidez beraien gu jotzean, ez da ezer gertatzen. Aldiz, alderantziz izango balitz matxista hutsak izango ginateke".

Kontzientziazioa
Indarkeria matxista jasan duzula uste duzu? Eta eragin duzula? Galdera horiek ere luzatu zaizkie ikerketan parte hartu duten lagunei. %21.4k aitortu du genero indarkeria bizi izana (%78.6k ezetz dioen artean), eta %91.6k pentsatzen du ez dela biolentziarik eragin. Kaletik jarraitzea da gehien errepikatutako joeretako bat, edo txistuen ondorioz pausoak azkartu behar izatea.

Txikitako oroitzapenak ere markatu ditu zenbaitetan genero indarkeriak: "Es-kolan mimikara jolasten genbiltzan, eta mutila medikua zen. Adibidea egiteko titi bat ukitu zidan, eta oso txarto pasa nuen. Beste batean, mutiko batek kolpe bat eman zidan bular batean, eta maisuak nerabeen gauzak direla esan zuen, garrantzia kentzeko".

Bikote harremanetan ere piztu dira alarmak: "Mutil lagunak nahi ez nituen gauzak egitera behartu ninduen". "Nire baimenik gabe argazkiak atera eta ukitu ninduten", aipatu du inkestan beste batetik. Hain zuzen, baimenik gabe gorputza ukitu izana salatu du %31,3k, hirutik batek.

Etxera bidean, beldurra sentitu du %55,7k, eta soinean daramanagatik epaitua sentitu da %32,8.

Erasoaren aurrean, gazteen joerak
Dena den, bikoteak ez du mespretxuz tratatu %93ren aburuz. Horrenbestez, kontzientziaziorako eta prebentziorako lanketek balio izan dute: indarkeria jasanez gero erasotua babestu eta salatzeraz animatuko luke %71k. Partaideen %10,7k erasotzailea salatuko luke, eta indarkeria geratzeko eskatuko lioke. %5k, berriz, erasotua babestuko luke, baina ez luke salatzen lagunduko. Hala ere, bada erasotzailea babestu eta indarkeria onartuko lukeenik, %2.7 hain zuzen. %4.7k, ordea, ez luke pausorik emango, "nahiago dut tartean ez sartu eta ez busti".

"Denok libre gara edozer egiteko, baina ez mina egiteko" esanez borobildu du tailerraren bukaera gazteetako batek. Aski eta aske izateko bidean, beste urrats bat gehiago.

Etxera bidean, beldurra sentitu du %55,7k, eta soinean daramanagatik epaitua sentitu da %32,8

Indarkeria jasanez gero erasotua babestu eta salatzeraz animatuko luke %71k



INDARKERIA MATXISTAREN AURKA

A I A R A L D E A

Dantzari

L E H I A K E T A



IRIZPIDEAK

BI KATEGORIA ETA SARI EGONGO DIRA:
BANAKAKOA 150€ ETA TALDEKAKOA 300€

EZ DA EGONGO ADIN MUGARIK

KOREOGRAFIAREN ABESTIAK INDARKERIA
MATXISTAREN SALAKETA EDO
EMAKUMEAREN AHALDUNTZEAREKIN
ZERIKUSIA IZAN BEHAR DU ETA EUSKARA
IZAN BEHARKO DU HIZKUNTZA NAGUSIA

OSASUN EGOERAK AHALBIDETZEN BADU,
AZAROAREN 20AN AIARALDEA
KOMUNIKABIDEAK "INDARKERIA
MATXISTAREN AURKA AIARALDEA
DANTZAN" IKUSKIZUNEAN PARTE
HARTZEKO PRESTUTASUNA ERAKUTSI
BEHARKO DUTE PARTAIDEEK

IZEN EMATEA

AZAROAK 6 ARTE EGIN AHAL IZANGO DA
FEMINISMOA@AIARALDEA.EUS POSTA ELEKTRONIKORA
EDO 688625900 ZENBAKIRA MEZUA BIDLITA

IRABAZLEAK

BOZKETA FASEA AZAROAREN 23TIK 29RA IZANGO DA
AIARALDEA.EUS WEBGUNEAN

SARIDUNAK AZAROAREN 30EAN JAKINARAZIKO DIRA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

AIARALDEA GAUR

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena